

ESKOLAKO EKINTZAK

- Gure DBHko ikasleak AHOPREST izango dira eta 11 egunetan euskara gehiago erabiltzeko ahalegina egingo dute. Horretarako, egun bakoitzerako erronka zehatz bat proposatuko diegu: gaur patioa, gaur pasiloa, gaur jantokia... Plastikako klaseetan euren txapa propioak sortu dituzte.
- EUSKAL TRIBIALA: zentroko ikasle zein irakasle guztiei zuzendutako lehiaketa. Ordubetea galdera sorta bati erantzun beharko diote. Erantzun zuzen gehien ematen duen taldeak sari berezia irabaziko du!
- Abenduaren 3an, MINTZODROMOA antolatuko da eskolan. Batxilergoko eta DBH 3. eta 4. mailako ikasleek hartuko dute parte, baita zenbait irakaslek ere. Bi orduz gai desberdinen inguruan euskaraz arituko gara. Sorpresa ugari egongo dira!